



EBAZPENA Hezkuntzako Sailburuordearena, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleek, ingelesa irakasteko zein beste arlo batzuetako ingelesez eskainitako irakaskuntza-ikaskuntzan aritzeko beren hizkuntz kompetentziak hobetzera zuzendutako, “ENGLISH FOR BETTER TEACHING” programan parte hartzeko baldintzak ezartzen dituena.

Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoen artean dago Europako esparruan 2030erako¹ ezarritako hezkuntza- eta prestakuntza-arloko berrikuntza- eta garapen-printzipioak gure testuinguruaren eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkekin lerrokatzea. Horrek paradigma aldaketa garrantzitsua dakar, gaitasunetara bideratuago dagoen hezkuntza eskatzen du, gero eta globalagoak eta kultura aniztasun handiagokoak diren ikaskuntza-ingurune berriez ohartzeaz gain.

Gure curriculum-dekretuek adierazten dute Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osotasunean garatu behar dituela eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko kompetentziak eskuratu behar direla, errealizazio eta garapen pertsonalerako.

Eta ikasleek aipatutako oinarrizko gaitasun horiek lortzeko, euskal hezkuntza-sistemako irakasleek gaitasun-profil egokia eduki behar dute, baldintza onenetan bete ahal izateko beren egitekoak eta lanak. Horrela izanda, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak bultzatutako ditu irakasleak prestatzea eta eguneratzea, bikaintasuna hezkuntza berrikuntzara bideratutako proiektuen bidez eta profesional ezberdinen arteko lankidetzaren prozesuak.

Oinarrizko Hezkuntza² amaitzean ikasleak izan behar dituen oinarrizko zortzi gaitasunetatik bik hizkuntza-komunikazioaren eta komunikazio eleaniztunaren garrantzia nabarmentzen dute, eskolako eta eguneroko bizitzako hainbat egoeratan ahoz nahiz idatziz komunikatzeko ezinbesteko gaitasunak baitira, baita komunikaziorako eta ikaskuntzarako egoki eta modu eraginkorrean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko ere.

Dimentsio historikoan eta kultur artekoan dituzten nahien edo beharren arabera gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahoz eta idatziz (entzun, hitz egin, irakurri eta idatzi) ulertzeko, adierazteko, lotzeko eta interpretatzeko trebezian oinarritzen dira gaitasun horiek.

Nazioarteko ikerketek aho batez agertzen dute irakaskuntza hobetu nahi duen edozein ekimen irakasleen mende dagoela, aldaketaren eragile nagusiak baitira; izan ere, hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzaren mende dago.

¹ Kontseilu Europarra (2021): KONTSEILUAREN EBAZPENAK Kontseiluaren Ebazpena hezkuntza- eta prestakuntza-esparruan Europa mailako lankidetzarako marko estrategikoari buruz, Hezkuntzarako Europar Esparruari eta harago begira (2021-2030): <https://www.boe.es/doue/2021/066/Z00001-00021.pdf>

² Kontseilu Europarra (2018): KONTSEILUAREN GOMENDIOAK 2018ko maiatzaren 22ko KONTSEILUAREN GOMENDIOA ikaskuntza iraunkorrerako gaitasun giltzarriei buruz (Testu bereizlea EEren ondorioetarako) (2018/C 189/01): [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=SV](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=SV)



Sail honek arlo horretan egiten dituen ekimenen baitan; atzerriko hizkuntzetan, ikasteko testuinguru eta proposamen eraginkor berrien alorrean, irakasleen prestakuntza hobetu dadin, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan eta oro har ezar daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Xedea

1. Deialdi honen xedea da, norgehiagoka-erregimenean, ingelesezko hizkuntza-gaikuntzarako bi prestakuntza jardueratarako ikastetxeak eta irakasleak hautatzeko prozedura ezartzea. Saioak unibertsitatez kanpoko araututako hezkuntzako irakasleentzako izango dira eta lan ordutegiaren baitan gauzatuko dira. Erabateko dedikaziodunak izango dute eta Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialean eskainiko dira 2023ko otsailaren 28tik 2023ko maiatzaren 19ra. Halaber, jardueretan parte hartuko duten irakasleak ordezkatuak izango dira beren ohiko zereginetan.

2. artikulua. – Formakuntza saioen ezaugarriak

1. Hizkuntza-gaikuntzarako BEE2 ikastaroa

Deialdi honetan onartuak izan daitezke curriculum-arloak edo irakasgaiak ingelesez eskaintzen dituzten ikastetxe publikoak, baldin eta, beren ikastetxeko hizkuntza-proiektuarekin bat etorritz, irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetu nahi badute ingelesez irakasteko edo irakaskuntza partekatua emateko. 10 plaza eskaintzen dira ingeleseko B1 maila egiaztatua duten irakasleentzat. Hautatutakoak ofizioz matrikulatuko dira ingeleseko B2 maila egiaztatzeko hizkuntz eskolako azterketa ofizialean. Ikastaro hau gainditzeko, nahitaezkoa izango da hizkuntza eskolako azterketa hori egitea, ez ordea, gainditzea.

2. Hizkuntza-gaikuntzarako DIVING ikastaroa

Deialdi honetan onartuak izan daitezke curriculum-arloak edo irakasgaiak ingelesez eskaintzen dituzten ikastetxe publikoak, baldin eta, beren ikastetxeko hizkuntza-proiektuarekin bat etorritz, irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetu nahi badute ingelesez irakasteko edo irakaskuntza partekatua emateko. 10 plaza eskaintzen dira ingeleseko B2 maila egiaztatua izan eta ingeles irakasten duten irakasleentzat. Hautatutakoak ofizioz matrikulatuko dira ingeleseko C1 maila egiaztatzeko hizkuntz eskolako azterketa ofizialean. Ikastaro hau gainditzeko, nahitaezkoa izango da hizkuntza eskolako azterketa hori egitea, ez ordea, gainditzea.

Ikastaro bietan irakaslegoaren eguneratze didaktiko eta metodologikoari begirako atal bat egongo da curriculum berria erreferentziatzen hartuta. Hizkuntz trebetasunen baitan, bereziki, ikaskuntza jardueran ahozko komunikazioa landuko da. Era berean, ingeleseko material didaktikoak sortzeko eta horien hizkuntza-kalitatea bermatzeko jarraibideak emango dira.



Ikastaroetako batean esleitu gabeko plazak, beste ikastaroan eskainitakoei gehituko zaizkio, baldin eta, horretan eskaera egin dutenek deialdian jasotako baldintzak betetzen badituzte, dagoeneko sortutako taldeetan txerta badaitezke eta baliabide nahiko baldin badaude.

3. artikulua. - Diru-hornidura

Aurrez aipatutako xedeari begira, Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu atalaren kargu, orotara, 340.000 euro bideratuko dira programa garatzeko.

Hautatutako irakasleko ezohiko libramendu bat egingo zaio haren ikastetxeari, joan-etorrien gastuei aurre egiteko.

Prestakuntza saioa gainditu duten irakasleek (bertaratzearen %80, eta ikastaroaren berezko jarduerak gainditu badituzte, eta bizi diren herria eta helmugako zentroa prestakuntza egin den udalerriaz bestelakoak badira), ikastaroa amaitzean, laguntza ekonomikoa jaso ahal izango dute joan-etorriengatik. Kontzeptu horregatik finantzatuko dira destinoko edo bizilekuko udalerraren eta jarduera garatzen den udalerraren joan-etorriko bidaiak, 0,15 euro jardueraren aurrez aurreko fasean benetan parte hartu den kilometro eta egun bakoitzeko. Horretarako, Hezkuntza Sailak ofizioz egiaztatuko ditu parte hartzaileak bertaratu diren egunak, eta ikastetxeei libramendua egingo die.

Hezkuntza sailak hizkuntz eskolarako distantzia laburrena hartuko du aintzat, hau da, helmugako ikastetxe edo herriarena. Ebazpen honen ondorioetarako, hautatutako irakaslearen ikastetxearen edo herriaren eta Bilboko Hizkuntza Eskolaren arteko distantzia Hezkuntza Departamentuaren tauletan jasotakoa izango da.

4. artikulua. – Onuradunak

Curriculum-arloak edo irakasgaiak ingelesez ematen dituzten Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak izan daitezke deialdi honetan onartuak. Lehentasuna izango dute, aldez aurretik, Eleaniztasunerantz programako ebazpenetan atzerriko hizkuntzetan arlo kurrikularretan sakontzearekin edo ekimen berritzaileekin lotuta Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren A edo B modalitateetan hautatuak izan diren Ikastetxeek; beren ikastetxeko irakasleek parte hartzea proposatu badute, dagokien eskabidea osatuz (I. Eranskina).

5. artikulua. – Baldintzak

1. Ikastetxeentzako baldintzak

Ikastetxeak curriculum-arloak edo irakasgaiak ingelesez ematea eta ikastetxeko hizkuntza-proiektuan hala jasota izatea.

2. Parte hartzeko irakasleentzako baldintzak



Ikastetxeak proposatutako irakasleak:

- Bertan esleitutako behin betiko plaza izan behar du.
- Aukeratutako ikastaroaren arabera EEMBko B1 edo B2 mailari dagokion ingelesezko gutxieneko titulazioa izan behar du. Baldintza hori ikastaroan hasi aurretik egiaztatuko da.
- 22-23 ikasturtean zehar ez parte hartu izana edo parte hartzea liberazio-motaren bat lotua duten beste prestakuntza batzuetan, hala nola IRALEn edo *Pluriliteracies for Deeper Learning* deialdian.
- Funtziorik ez izatea BeA programen edo mentoria digitalaren baitan.

6. artikulua. – Eskakerak aurkeztea

1. Ikastetxeek 2023ko urtarrilaren 10era arteko epea izango dute, egun hori barne, eskaerak egiteko.
2. Eskaera modu elektronikoa aurkeztuko da, eskabide-orri normalizatuaren bidez, eta behar bezala beteta. Eskabide-eredua (I. eranskina) egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri: <https://educacion.hezkuntza.net>
3. Ikastetxe interesdunak eskabideari dokumentu bat erantsi beharko dio, eskatzen duen ikastaroaren arabera IA edo IB eranskineko ereduak oinarri hartuta; horretan jaso beharko ditu prestakuntza-jardueran parte hartzeko proposatutako irakasleen datuak, nahiz ikastetxeko hizkuntza-proiektuan, A eta B modalitateetan, hori garatzeko esleituak dituzten funtzioak eta horien ingeles maila zein ingeles ziurtagiriaren maila.
4. Ikastetxeak, prestakuntza-modalitate bakoitzerako, gehienez bi irakasle proposatu ahal izango ditu, lehentasun-hurrenkeraren arabera, pertsona bat titular eta beste bat erreserban. Hala ere, ikastetxe bakoitzari bi ikastaroetako bat baino ezin izango zaio esleitu, hautaketa egin ondoren plaza hutsik geratzen ez bada.
5. Aurkeztutako eskabidean akatsen bat, zehaztasun eza edo dokumenturen baten falta antzematen bada, ikastetxeari 5 egun baliouduneko epea eskainiko zaio akatsa zuzentzeko.

7. artikulua. Parte-hartzaileen hautaketa

1. Deialdi honetako ikastaroetako parte hartzaileen zerrenda osatzeko, baldintzak bete eta modu elektronikoa, adierazitako epean, aurkeztutako ikastetxeen eskabideak aztertuko dira.
2. Lehenik eta behin, prestakuntza-modalitate bakoitzerako, ikastetxeak hizkuntza-proiektuen A eta B modalitateekin lotutako deialdietan parte hartu duten aldien arabera ordenatuko dira; soilik, 5.1. artikuluan ikastetxearentzat eta 5.2. artikuluan hautagaientzat, adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikastetxe eskatzaileak. Lehentasuna izango dute deialdiak bost alditan edo gehiagotan esleitu zaizkien ikastetxeek.
3. Aurreko puntuan aipatutako sailkapena egin ondoren, 5 deialdi edo gehiagotan esleipena jasotako



ikastetxe gehiago badago 2. artikuluan finkatutako plaza erabilgarriak baino, ikastetxe horien eskabidean jasotako irakasleen puntuazioa hartuko da aintzat; baremazioa gauzatzeko IV. eranskina erabiliko da, eta II. eranskinari lotu beharreko dokumentazioarekin frogatuko dira baremazioan aintzat hartu daitezkeen irizpideak:

- a. Arloak/irakasgaiak ingelesez irakasten emandako denbora.
- b. Ingeleseko irakasle lanetan emandako denbora.
- c. Ikastetxeko hizkuntza-batzordean parte hartu edo hori koordinatzea.
- d. A eta B modalitateetako ikastetxeko beste hizkuntza-proiektu batzuk koordinatu edo horietan parte hartzea.
- e. Nazioarteko proiektuetan parte hartu edo horiek koordinatzea.
- f. Hizkuntzen irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko argitalpenak/materialak aurkeztea.
- g. Gaiari buruzko prestakuntza saioetan parte hartzea.
- h. Zuzendaritza-taldeko kidea izan izana.

4. IV. eranskinean jasotako baremoa aplikatu ondoren ikastetxeek proposatutako bi pertsonaren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, B modalitateko ikastaro gehiagotan parte hartu duen ikastetxea goragoko hurrenkeran kokatuko litzateke.

5. Hiru deialdi edo gehiago esleitu zaizkien ikastetxeen eskaerak aztertu ondoren oraindik plazak guztiak bete gabe badaude, 2 deialditan parte hartu duten ikastetxeen eskaerak aztertuko dira, eta horien artean ebazteko ere 3. eta 4. puntuetan zehaztutakoaren arabera jokatu da. Horren ondoren, oraindik ere, hainbat plaza hutsik geratzen badira, deialdi bat bakarrik esleitu zaien ikastetxeen eskaerak aztertuko dira, eta modu berean jokatu da.

6. Aurreko puntuak ikastaro bakoitzari era berezian aplikatuko zaizkio.

7. Ikastetxe bakoitzak bi ikastaroetako batean bakarrik parte hartu ahaldu du, salbu eta, hautaketa amaitzean, plaza hutsak geratzen badira.

8. artikulua. Parte hartzeko baldintzak

Ikastaroak irauten duen artean, lantokizat hartuko da ikastaroaren egoitza, hortaz, nahitaez joan beharko da prestakuntza saioetara.

9. artikulua. Prestakuntzan saioan parte hartzeko hautatutako irakasleen konpromisoak

Hautagai guztiek konpromezu hauek hartuko dituzte (III. eranskina):

- Prestakuntza-jardueraren etapa guztietan aktiboki parte hartzea, dagozkien zeregin guztiak betez.
- Dagozkien B2 edo C1 maila egiaztatzeko probetara aurkeztea, horretan ofizioz matrikulatuko dira (azterketaren data 2023ko maiatzaren 19a izango da).
- 2023/2024 ikasturtean haien ikastetxeko talde batean ingelesaren edo ingelesez eskainitako irakasgai baten irakaskuntza edo irakaskuntza partekatua beren gain hartzea.



- Ikastetxeak hala eskatuz gero, hurrengo ikasturtean (2023/2024) ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren koordinazioa beraien gain hartzea.
- Garatutako material didaktikoak Hezkuntza Sailaren esku uztea.
- Hezkuntza Sailak gaiari buruz antolatzen dituen prestakuntza- edo dibulgazio-saioretan parte hartzea, eta esperientzia eta/edo garatutako materialak partekatzeko prest egotea.

10. artikulua. Kudeaketaren arduraduna

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokio zuzkidura ekonomikoak emateko prozedura kudeatzea, zein deialdi honetan aurreikusitako prestakuntza behar bezala garatzea ere.

11. artikulua. Eskaerak ebazteko batzordea.

Onartutako eskabideak batzorde batek ebaztuko ditu. Batzorde hori kide hauek osatuko dute:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleen Hobekuntzako Zerbitzuaren arduradunak; batzordeburua izango da.
- Berritzeguneetako bi aholkulari edo hizkuntzen arloko espezialistak.
- Ikaskuntza eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak izendatutako bi teknikaririk; horietako batek batzordeko idazkari-lanak egingo ditu.

12. artikulua. Prozeduraren ebazpena

1. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendariak emango du behin-behineko ebazpena, eta honako hauek jasoko ditu.

- Onartutako eskabideak, ikastaro bakoitzeko prestakuntzan plazak betetzeko ikastetxe bakoitzeko irakasleen zerrenda adierazita.
- Ukatutako eskabideen zerrenda, arrazoia adierazita.
- Erreserba-egoeran dauden irakasleen zerrenda ordenatua

2. Ebazpena ikastetxe eskatzaileei jakinaraziko zaie Hezkuntza Sailaren web-orriaren bidez eta zuzendariari posta elektronikoz. Zuzendariak bost egun balioduneko epea izango dute, aplikazio elektronikoa beraren bidez, alegazioak aurkezteko.

3. Alegazioak aztertu ondoren, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta eskatzaileei jakinaraziko die, aurreko paragrafoan zehaztutako eran. Ebazpenak, alde batetik, onartutako irakasleen zerrenda jasoko du, ikastetxearen arabera antolatuta, eta, bestetik, ukatutako eskabideen zerrenda, arrazoia adierazita. Behin betiko ebazpenean bertan, deialdiaren baldintzak bete eta gerora bajaren bat gertatzen bada, erreserban geratu diren hautagai guztien hurrenkera jasoko da.



4. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.2 artikulua).

13. artikulua. Dietentzako zuzkidura ekonomikoaren ordainketa; parte-hartzaileen joan-etorrien gastua ordaintzeko

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendariak, ikastaroa gainditu duten irakasleen zerrenda jaso ondoren, dagozkien laguntzak ematea ebatziko du. Laguntzak igorpen berezi bidez ordainduko zaizkie irakasleen ikastetxeei, ebazpen honen 3. artikuluan ezarritako baldintzen arabera neurtutako, irakasle horien ezohiko gastuei aurre egiteko.

14. artikulua. Giza baliabideak.

Parte-hartzaileek proiektuaren jarraipena egiteko, Hezkuntza Sailak esleituta, proiektuaren koordinatzaile baten laguntza izango dute.

Jardueran parte hartzeko, hautatutako irakasleak liberatu eta ordezkatu egingo dira. Dagokien zerrendatan langilerik ez egoteagatik ez balego aukerarik ordezkapena gauzatzeko, hautatutako pertsona baztertu egingo da eta ezingo du prestakuntza saioan parte hartu. Berak hutsik utzitako lekua betetzeko erreserban-egoeran geratu direnen zerrendara joko da; dagokien zerrendaren hurrenkerari jarraituta bete dezakeen lehen pertsonari esleituko zaio.

15. artikulua. Ziurtagiriak

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak banaka eta ofizioz ziurtatuko dizkie 240 formakuntza ordu ikastaroan parte hartu eta hori gainditu duten irakasleei. Horretarako hainbat baldintza bete beharko dira: %80-tik goragoko asistentzia izatea, ikastaroan zehar agindutako jarduera guztiak bete ostean ikastaroa gainditu izana, garatutako ikaskuntza egoera entregatu izana eta horren ebaluazioa gainditu izana.

Prestakuntzako parte hartzaileak ofizioz matrikulatuko dira, 2022/2023 ikasturtean, hizkuntz eskolan dagokien mailan. Halaber, maila-proba gainditzen badute dagokien titulazio ofiziala eskuratuko dute.

16. artikulua. Datu pertsonalak

Ebazpen honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumena duen zuzendaritzak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren "arduradun" den heinean. Datu pertsonalen tratamendu horren xedea deialdi hau kudeatzea eta ebaztea izango da; hots, interes publikoan eta parte-hartzeko eskaeran oinarritutako xedea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuok trataera mugatzeko edo haien erabilerari aurka egiteko eskubideak ere.



Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).

Halaber, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza baimentzen dute aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla, beste erakunde publiko batzuetan, egiaztatzeko.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean

Maria Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntza Sailburordea



IA Eranskina

BEE2 hizkuntza gaikuntza ikastarorako eskaera (B1etik B2ra)

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

..... jauna/Andrea..... NAN zenbakiduna

..... ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuan, 2022/2023 ikasturterako, islatutako planifikazio-datuen laburpena

	LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA	
Ikastetxeko ikasle taldeen guztizko kopurua				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle taldeen guztizko kopurua				
Irakasleen guztizko kopurua				
2022-2023 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				
B1, B2, C1 edo C2 mailako titulazioa egiaztatu duten irakasleen kopurua	B1	B2	B1	B2
	C1	C2	C1	C2
Atzerriko hizkuntzaren bat (ingeleza, frantsesa, alemana...) irakasgaitzat irakasten duten irakasleen kopurua				
Irakasgairen bat atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpoan utzita)				
Ingelesez eskainitako arlo edo ikasgaiak				

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela, Ingelesezko “English for Better Teaching”, irakasleen ingelesezko hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta ingeleza eta ingelesezko beste arlo batzuk irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzeko, prestakuntzan irakasleek parte hartzeko baldintzak ezartzen dituen deialdiaren irizpideak. Hala, jarduera horretan bere ikastetxeko irakasle hauek parte hartzea proposatzen du:

TITULARRA					
Proposatutako irakasleak				Eginkizunak Hizkuntza-proiektuaren baitan	Atzerriko hizkuntza: maila edo ziurtagiria (ingeleza)
Ordena	NAN	Izena	Abizenak		
1					
ERRESERBAKOA					
1					

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarduera honetarako proposatutako irakasleek ezagutzen dute eta baimena ematen dute prestakuntza ikastaroan parte hartzeko.

Jarduera honetarako proposatutako irakasleek konpromezua hartzen dute, 2023/2024 ikasturtean zehar, irakaskuntza edo irakaskuntza partekatua ingelesez eskaintzeko.



IB Eranskina

DIVING hizkuntza gaikuntza ikastarorako eskaera (B2etik C1era)

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

..... jauna/Andrea..... NAN zenbakiduna
 ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuan, 2022/2023 ikasturterako, islatutako planifikazio-datuen laburpena

	LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA	
Ikastetxeko ikasle taldeen guztizko kopurua				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle taldeen guztizko kopurua				
Irakasleen guztizko kopurua				
2022-2023 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				
B1, B2, C1 edo C2 mailako titulazioa egiaztatu duten irakasleen kopurua	B1	B2	B1	B2
	C1	C2	C1	C2
Atzerriko hizkuntzaren bat (ingeleza, frantsesa, alemana...) irakasgaitzat irakasten duten irakasleen kopurua				
Irakasgairen bat atzerriko hizkuntzan irakasten duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpoan utzita)				
Ingelesez eskainitako arlo edo ikasgaiak				

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela, Ingelesezko “English for Better Teaching”, irakasleen ingelesezko hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta ingeleza eta ingelesezko beste arlo batzuk irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzeko, prestakuntzan irakasleek parte hartzeko baldintzak ezartzen dituen deialdiaren irizpideak. Hala, jarduera horretan bere ikastetxeko irakasle hauek parte hartzea proposatzen du:

TITULARRA					
Proposatutako irakasleak				Eginkizunak Hizkuntza-proiektuaren baitan	Atzerriko hizkuntza: maila edo ziurtagiria (ingeleza)
Ordena	NAN	Izena	Abizenak		
1					
ERRESERBAKOA					
1					

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarduera honetarako proposatutako irakasleek ezagutzen dute eta baimena ematen dute prestakuntza ikastaroan parte hartzeko.

Jarduera honetarako proposatutako irakasleek konpromezua hartzen dute, 2023/2024 ikasturtean zehar, irakaskuntza edo irakaskuntza partekatua ingelesez eskaintzeko.



II. ERANSKINA

Proposatutako irakasleen ezaugarriak

(Orri bat bete proposatutako partaideko eta orri horretan adierazitako merituen ziurtagiriak erantsi. Ezinbestekoa da irakaslearen eskainitako zerbitzuen orria eranstea)

NAN	Izena	Abizenak

1.- Ingeleseko titulua:

.....

.....

2.- Hizkuntzen irakaskuntza koordinatzen aritu den ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

.....

3.- Hizkuntzen batzordean aritu den ikasturte eta ikastetxeak:

.....

.....

4.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua B modalitatean koordinatzen aritu den ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

.....

5.- B modalitateko ikastetxeko hizkuntza-proiektuan aritu den ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

.....

6.- Nazioarteko proiektuak koordinatu dituen ikasturteak eta ikastetxeak:

.....

.....

7.- Nazioarteko proiektuetan parte hartzen aritu den ikasturte eta ikastetxeak:

.....

.....

8.- Hizkuntzen irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko argitalpenak eta materialak:

.....

.....

9.- Gaiari buruzko honako prestakuntza hauetan parte hartu du:

.....

.....

10.- Zuzendaritza-taldean egondako ikasturteak eta betetako karguak (zein ikastetxetan):

.....

.....

11.- Ingelesez eskaintzen dituen irakasgaia edo diziplinak:

.....

.....



III. ERANSKINA

Erantzukizunpeko adierazpena eta konpromisoak beregain hartzea

DNI	Izena	Abizenak
ZENTROA:		

Onartzen dut Ikastetxeak eta irakasleak hautatzeko “English for Better Teaching”, ingelesa eta beste arlo batzuk ingelesez irakatsi eta ikasteko prozesua hobetzeko, ingelesez eskainitako berariazko prestakuntzan parte hartzea

Halaber, hautatua izan ondoren prestakuntzan parte hartuko banu, konpromezu hauek hartzen ditut:

- Ikastaroan zehar ikasitakoa nire ekinbide profesionalean egikaritzea, 2023/2024 ikasturtean zehar ingelesez eskinitako irakaskuntza edo irakaskuntza partekatua jarduerak nire gain hartuta.
- Hezkuntza sailaren esku uztea nire ikastetxerako prestatutako material didaktikoak, honek berak aukeratutako bitartekoen bitartez argitara ditzan.
- Hezkuntza Sailak gaiari buruz antolatutako prestakuntza-saioretan parte hartzea eta esperientzia eta/edo sortutako materialak partekatzeko prest egotekoa.
- Prestakuntza-jardueraren etapa guztietan aktiboki parte hartzea eta horri lotutako zeregin guztiak egitea.
- Egindako ikastaroaren arabera B2 edo C1 maila egiaztatzeko probara aurkeztea.
- Ikastetxeak premia badu, hurrengo ikasturtean (2023/2024) ikastetxearen hizkuntza proiektuaren koordinazioaz arduratzea.
- Hezkuntza Sailak gaiari buruz antolatutako prestakuntza edo dibulgazio saioretan parte hartzea, esperientzia eta/edo sortutako materialak partekatzeko prestutasuna agertuz.

.....(e)n, 202...koren(e)an

Izpta.:



IV. eranskina

Eskaeren balorazio teknika egiteko baremoa

	Gehieneko puntuazioa
1. - Ikastetxea A eta B modalitateetako hizkuntza-proiektuan parte hartzeko hautatua izan da. Parte hartu den ikasturteko puntu 1 emango zaie.	5
2. - Proposatutako irakasleak ikastetxeko hizkuntza-proiektuko koordinatzaile izan dira. Proiektua koordinatu duen ikasturteko puntu 1 emango zaie.	4
3. - Proposatutako irakasleek ingelesez eskaini dituzte edukiak ikastetxean. Eskaini duten ikasturteko puntu 1 emango zaie.	3
4. - Proposatutako irakasleek ingeleseko hizkuntza arloa eskaini dute ikastetxean. Eskaini duten ikasturteko puntu 1 emango zaie.	5
5. - Proposatutako irakasleek ikastetxeko hizkuntzen batzordea koordinatu dute. Ikasturteko puntu 1 emango zaie.	5
6. - Proposatutako irakasleek ikastetxeko hizkuntzen batzordean parte hartu dute. Ikasturteko puntu 1 emango zaie.	2
7. - Proposatutako irakasleek nazioarteko proiektuak koordinatu dituzte. Koordinatutako proiektuko puntu 1 emango zaie.	3
8. - Proposatutako irakasleek nazioarteko proiektuetan parte hartu dute. Parte hartu duen proiektuko puntu 1 emango zaie.	2
9. - Proposatutako irakasleek ikastetxeko hizkuntza-proiektuarekin zerikusia duten prestakuntzetan hartu du. Parte hartu duen formakuntzako puntu 1 emango zaie.	3
10. - Proposatutako irakasleak zuzendaritza taldeko kide izan dira. Zuzendaritza taldean egindako ikasturteko puntu 1 emango zaie.	3
Puntuazioa guztira	35

**V. ERANSKINA****Ikastaroaren ezaugarriak**

Prestakuntza honen xedea da irakasle parte hartzaileei aukera ematea, alde batetik, ingelesez duten hizkuntza-gaitasuna hobetzeko, eta bestetik, hizkuntzen didaktikari buruzko ezagutzak eguneratzeko; hala, ikasgelako ikasleekin ikasteko prozesuak aberasteko eta hobetzeko. Halaber, deialdiak, nahi duten irakasleei aukera eskaintzen die beren ikastetxean eremu hori garatzeko eta beren ikastetxeetan hizkuntza proiektuak koordinatzen dituzten irakasleak prestatzeko.

Gainera, parte-hartzaileek aukera izango dute materialak garatzeko eta ikaskuntza sakona eta horretan erabiltzen diren estrategiak aztertu eta gelako praktikan martxan jartzeko:

Prestakuntza jarduera hau amaitzean, parte-hartzaileek:

- Beren Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna hobetu eta eguneratuko dute, ahozko adierazpenean azpimarra jarrita.
- Arlo honetako ikerketa berrien azken ondorioei eta proposamenei buruzko ezagutza sakona eurenaganatuko dute.
- Ikasgelan ikasleekin egingo dituzten zereginetan eta praktikan eskuratutako ezagutzak aplikatu ahal izango dituzte.
- Materialak eta eredutzat erabil daitezkeen beste proposamen batzuk trukatu nahiz egokitzeko eta ikasgelen beharretara egokitzeko gai izango dira.

Metodologiak arreta berezia eskainiko die ahozko trebetasunen garapenari eta hizkuntza-gaitasunen garapenari buruzko azken joera pedagogikoei.

- CLIL eredia aurkeztea eta alfabetatze anitzekin lotzea.
- Gaitasun eleanitza garatzea gure ikasleengan.
- Jarduera praktikoak, ikasgelarako materialen ekoizpena eta baliabideen trukea.
- Praktikari buruzko gogoeta sistematikoa eta horren ebaluazioa, parte-hartzaileei beren ikastetxeko eta gelako testuinguruan ikasitakoa aplikatzea ahalbidetuko dieten jarduera eta zereginen bidez.

Prestakuntza-jardueran zehar, parte-hartzaileek honako hauek egin beharko dituzte:

- Prestakuntza-moduluak osatzea, edukia eta prozesua ebaluatzea eta zereginak aurkeztea tutoreak ezarritako egutegiaren arabera.
- Prestakuntza-jarduerako beste parte hartzaile batzuekin lankidetzan aritzea, eskatutako zereginetan.
- Proposatutako jarduerak, zereginak eta proiektuak egiteko tresna digitalak erabiltzea, foro komunari gogoeta eta iradokizunak eginez eta, hala, baliabideen banku partekatua sortzen lagunduz.
- Nork bere ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartzea eta ikasitakoaren aplikazioari buruzko



ebaluazio pertsonala gauzatzea.

- Prestakuntza-jardueran aktiboki parte hartzea, behar bada sostengua eskatuz eta hausnarketa partekatua bultzatzen lagunduz.
- Ikasitakoa norberaren irakaskuntza-testuinguruan aplikatzea.